

Gasteizko Udalak 2003ko apirilaren 16an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen. Bertan zenbait atal elebidun izendatu ziren eta beste zenbaitetan mikroplana egiteko erabakia hartu zen. Berdintasunerako Zerbitzua da azken hauetako bat.

Zerbitzuaren helburu nagusia emakumeei laguntzea da. Hori lortzeko, honakoak egingo dira:

- Emakumeentzako banakako laguntza psikikoa eta gizarte laguntza
- Tratu txar fisikoak edo eraso sexualak jasan dituzten emakumeentzako laguntza
- Emakume taldeak sortzea eta zuzentzea
- Emakumearen arazoaren gainean, gizartea sentikortzeko eta sustatzeko kanpainak
- Emakumeentzako jarduerak gizarte etxeetan

Zerbitzuak honako osaera du:

LANPOSTUA	lanpostuaren		langilearen HE
	HE	derrigortasun data	
Psikologoa	3	01/02/1999	3
Goi mailako teknikaria (berdintasuneko agentea)	3	01/05/2002	2
Gizarte langilea	3	31/12/1992	3
Administrari laguntzailea	2	31/10/1992	2

- a) Zeintzuk urrats emango zenituzke bertan mikroplana diseinatu eta implementatzeko?
- b) Atalaren egoera ikusita, zeintzuk normalizazio-ekintza proposatuko zenituzke?

OHARRA:

Erantzuteko orduan kontuan hartu behar duzu zein den eskaintzen zaizuen lanpostuaren profila: dinamizatzaile-trebatzailea izatea, alegia.